

BURUHANDI ETA ERRALDOIEN ZAZPIGARREN KONTZENTRAZIOA

Jose Luis Insausti Urigoitia

Azkeneko urteotan, Oarso aldizkarian adierazi ditut Errenteria-Oreretako Erraldoi eta Buruhandien konpartsak Euskal Herrian barrena egindako emanaldi guztiak. Aurten, ordea, ez dira egingo; izan ere, 2004an zazpi gonbidapen jaso baziren ere, arrazoiak arrazoi ezin izan baitziren gauzatu.

Arrazoiak ez ziren buruhandi eta erraldoiak eramaten dituztenek, txistulariek edota konpartsa laguntzera joaten ginen herritarrok eragindakoak, baina jasotako gonbidapenei ezin erantzun izanak mindu egin gintuen kide guztiak, beti ordezkatu eta zabaldu baitugu harrotasunez gure herria.

Hala ere, argi eta garbi utzi nahi dut iaz izandako VII. Kontzentrazioa herritar askorentzat egun ahaztezina izango dela; baita iazko uztailaren 24an etorri eta parte hartu zuten konpartsa guztientzat ere halaxe izan zen, eta izango da.

Konpartsa eta partehartzaile guztien izenean Landare Elkarteari eskerrak eman nahi dizkiot, antolatzaile izateagatik; era berean, Errenteria-Orereta herriari ere eskerrona izandako harrera eta adeitasunagatik. Egundakoa ahaztezina izango dela aipatu dut arestian, ikuskizun zoragarria eta aparta baita 32 erraldoi eta 35 buruhandi dantzan ikustea. Era berean, hori bizitzeko aukera izan genuenok erraldoi zein sendi horretako kide sentitu ginen.

VII. kontzentrazioan 10 konpartsak hartu zuten parte eta 300 lagunek esku hartu zuten, Gipuzkoan inoiz izandako kontzentrazio handienetakoa izan zen. Zenbait gauza berri izan genituen; bai partaidetza mailan, baita antolaketa mailan ere. Azken finean, erraldoi eta buruhandi guztiak ikusgai izan genituen Koldo Mitxelena enparantzan, eta zahar zein gaztek aukera izan zuten goiz osoan nahi adina argazki ateratzeko. Bestalde, lehenengo aldiz Soria eta Kataluniatik ere hainbat konpartsa etorri ziren; hala nola, Barberá del Valles eta Molins de Rei. Errenteriako Kultur Musika Elkarteko Bandaren parte har-

zteza ere berri handia izan zen, orain laurogeita zortzi urte izan baitzen azkeneko aldiz.

Bukatzeko egun hartan gurera etorritako konpartsa guztiei eskerrona adierazi nahi diet. Eskerrik beroenak, Barbera Del Valles, Molins de Rei, Barrio San Pedro de Soria, Irun, Lezo, Pasaia, Oiartzun, Gros, Hondarribia, eta Errenteria-Oreretako konpartsei. Baita Errenteriako Kultur Musika Elkarteko Bandari, Agustinetako txistulariei, Ereintzako txistulariei, Zamalbideko Auzolani, Orereta Ikastolari, Errenteria-Oreretako udalari, Versailles jatetxeari eta M^a Carmeni ere.

Eskerrak bene-benetan Erraldoi eta Buruhandien zazpigarren konpartsa arrakastatsua izan zedin laguntza eman izanagatik.

